

|                                                                                                    |                                                                |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|
| <b>Espediente zk./Nº</b> Expediente: 2023YZUZ0002                                                  | <b>Erreg. data/Fecha Reg:</b> Erreg. zk. / Nº Registro: 000000 |
| <b>Gaia/Asunto:</b> 2023 / ERRETERIAKO MUSIKA KULTUR ELKARTEA / ZUZENEKO DIRU LAGUNTZA NOMINATIBOA |                                                                |
| <b>Eskatzailea/Solicitante:</b> ERRETERIA MUSIKAL UDAL ERAKUNDE AUTONOMOIA                         | <b>NAN(IFK)/DNI(NIF):</b> Q20005361                            |
| <b>Kokalekua /Emplazamiento:</b> Errenteria                                                        |                                                                |

**DEKRETUA****DECRETO****AURREKARIAK****ANTECEDENTES**

Errenteriako Musika Kultura Elkartea 1948ko abuztuaren 20an sortu zen. Zereginetako bat garai bateko Herriko Udal Musika Banda berrantolatzea izan zen. Data horretatik aurrera elkarteak Udalarekin diru-laguntza bat hitzartu zuen, eta horren truke urte osoan zehar Bandak hainbat emanalditarako betebeharra hartu zuen.

1994ko otsailaren 25ean Udalbatzak aho batez onartu zuen Errenteria Musikal Udal Musika Patronatuak bere gain hartzea Errenteriako Musika Kultura Elkartearen kudeaketa eta antolaketa gastuak.

Aurtengo, Errenteria Musikal Udal Erakunde Autonomoko aurrekontuan partida bat sortu zuen Elkartearen izenarekin.

Dirulaguntza hau Errenteriako Udaleko eta bere erakunde autonomoko dirulaguntzen plan estrategikoan txertatua dago.

Errenteriako Musika Kultura Elkarteak 2023 urterako proiektu bat aurkeztu du 72.000, euroko aurrekontua duena.

Espedientean jaso dira beharrezkoak diren txosten guztiak, dirulaguntza ematearen aldekoak:

- Errenteria Musikal Udal Erakunde Autonomoko zuzendari -administratzailea den Jokin Sukuntza Gorritxok 2023ko martxoaren 23an emandako txostena.

La Asociación de Cultura Musical de Errenteria se creó el 20 de agosto de 1948. Una de sus funciones era la reorganización de la Banda Municipal de Música creada en su día. La Asociación acordó una subvención con el Ayuntamiento a partir de ese día. A cambio, la Banda asumió la obligación de ofrecer varias actuaciones.

El 25 de febrero de 1994 el Pleno de la Corporación aprobó por unanimidad que el Patronato Municipal de Música Errenteria Musikal asumiera la gestión y los gastos de organización de la Asociación de Cultura Musical.

En el presupuesto del presente ejercicio del Organismo Autónomo Municipal Errenteria Musikal, se ha incluido una partida a nombre de la Asociación.

Esta subvención está contemplada en el Plan Estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria y de su OOAA.

La Asociación de Cultura Musical de Errenteria ha presentado un proyecto para el año 2023 con un presupuesto de 72.000,00 euros.

Constan en el expediente todos los informes necesarios, favorables al otorgamiento de la subvención:

- Informe de fecha 23 de marzo de 2023 del Director-administrador del Organismo Autónomo Municipal Errenteria Musikal Jokin Sukuntza

Gorritxo.

## **ZUZENBIDE OINARRIAK**

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntza Orokorrei buruzkoa.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.

Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-).

Horregatik guztiagatik, indarrean dauden Errenteria Musikal udal erakunde autonomoaren estatutuetan jasotako eskumenak baliatuz.

Honen bidez,

## **EBATZI DUT**

1.- Errenteriako Musika Kultura Elkarteari 72.000,00 euroko diru-laguntza ematea 2023 urtean zehar bere proiektua gauzatu dezan eranskinean ezarritako baldintzetan.

2.- 72.000,00 euroko gastua baimentzea eta xedatzea, indarrean dagoen aurrekontuko 1 481.01.326.14.2023 partidaren kontura, AD-48/2023.

3.- Dirulaguntzaren ordainketa honela egingo da:

## **FUNDAMENTOS DE DERECHO**

Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015).

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de los estatutos vigentes del Organismo autónomo municipal Errenteria Musikal.

Por la presente,

## **RESUELVO**

1.- Conceder a la Asociación de Cultura Musical de Errenteria una subvención de 72.000,00 euros para la ejecución de su proyecto durante el año 2023 en los términos establecidos en el anexo que se muestra a continuación.

2.- Autorizar y disponer un gasto de 72.000,00 euros con cargo a la partida 1 481.01.326.14.2023, del vigente presupuesto AD- 48/2023.

3.- El pago de la subvención se realizará de la siguiente forma:

- dirulaguntzaren %90 (64.800,00 euro), dekretua sinatzen denean.

- dirulaguntzaren %10 (7.200,00 euro), proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren, 2023ko abenduan zehar, betiere Erreterria Musikalek justifikazioa nahikotzat jotzen badu (Erreterria Musikal udal erakunde autonomoko zuzendari-administratzaileak, udal kontuhartzaileak eta Erakundeko Presidenteak).

4.- Ebazpen hau jakinaraztea onuradun elkarteari eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari. Era berean, Dirulaguntzen Datu Basera (BDNS) bidaltzea eta HAEko gardentasun atarian argitaratzea.

- 90% de la subvención (64.800,00 euros), tras la firma del presente decreto.

- 10% de la subvención (7.200,00 euros), una vez ejecutado el proyecto y tras la presentación de la justificación del mismo, durante el mes de diciembre de 2023, siempre que dicha justificación sea considerada suficiente por Erreterria Musikal (el Director-administrador del Organismo Autónomo Municipal Erreterria Musikal, la interventora municipal y el Presidente del Organismo Autónomo).

4.- Notificar esta resolución a la asociación beneficiaria y ponerla en conocimiento del Departamento de Hacienda y Desarrollo Económico. Asimismo, remitirla a la Base de Datos Nacional de Subvenciones (BDNS) y publicarla en el portal de transparencia de HAE.

Erreterria, sinadura datan

Erreterria, a fecha de firma

Iñaki Queralt Coira

Erreterria Musikal Udal Erakunde Autonomoko Presidente  
Presidente del Organismo Autónomo Municipal Erreterria Musikal

**Dirulaguntza arautzen duten oinarriak**  
**ERANSKINA I gisa eranstean dira**

**Se adjunta como ANEXO I las bases que regulan la subvención.**

## ERANSKINA II / ANEXO I

### **ZUZENEKO DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA ERRETERRIA MUSIKAL UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK EMANA EMKERI BERE EGITASMOA GARA DEZAN**

### **SUBVENCIÓN DIRECTA DEL ORGANISMO AUTÓNOMO MUNICIPAL ERRETERRIA MUSIKAL A LA ASOCIACIÓN DE CULTURA MUSICAL DE ERRETERRIA PARA DESARROLLAR SU PROYECTO EN EL MUNICIPIO.**

#### **ZIOA**

I.- EMKE 1948ko abuztuaren 20an sortu zen. Zereginetako bat garai bateko Herriko Udal Musika Banda berrantolatzea izan zen. Data horretatik aurrera elkarteak Udalarekin diru-laguntza bat hitzartu zuen, eta horren truke urte osoan zehar Bandak hainbat emanalditarako betebeharra hartu zuen.

#### **Musika banda proiektuak Erreterrian gauzatzen dituen helburuak ondorengoak dira:**

-Musika espresio bide mota ezberdinei bultzada eman asmoz, sortu eta abian jarritako "EMKE Urrats bat Aurrera" prozesua sustatu eta garatzea:

\*Musika sortzaileen eta hauen konposizio eta produkzioen gizarteratzeko egitasmoa musika-kultur eta gizarte eragileak sartzeko hauen sormen eta ekoizpena sustatu eta baliosteko helburuarekin.

\*Herrikoak diren Musika sortzaileen erakusketa publikoa erraztuko duten aukerak bultzatzea eta sortzea.

\*"EMKE Urrats bat Aurrera" ekimenak musika-eragileen arteko sinergiak sustatzeko gunea izatea udalerrian musika-sormenerako eta esperimentaziorako espazioa garatuz egungo musika oinarri zabaletik abiatuta,

#### **MOTIVOS**

I.- Que EMKE fue fundada el 20 de agosto de 1948. Una de las tareas fue reorganizar la antigua Banda Municipal de Música del pueblo. A partir de esa fecha, la Asociación pactó con el Ayuntamiento una subvención a cambio de la cual la Banda asumió durante todo el año la obligación de varias actuaciones.

#### **Los objetivos del proyecto Asociación de Cultura Musical en Erreterria son los siguientes:**

-Promover y desarrollar el proceso "EMKE Urrats bat Aurrera" creado y puesto en marcha para impulsar los diferentes tipos de expresión musical:

\*Proyecto de integración social de las músicas creativas y de sus composiciones y producciones para integrar a los agentes socio-culturales musicales con el fin de promover y valorar su creación y producción.

\*Impulsar y crear oportunidades que faciliten la exposición pública de Creadores Musicales del municipio.

\*Que la iniciativa "EMKE Urrats bat Aurrera" sea un espacio para promover sinergias entre los agentes musicales a través del desarrollo en el municipio de un espacio para la creación y experimentación musical a partir de la amplia base musical actual.

“Musika-hezkuntza akademikotik” harago sortzen den hutsuneaz baliatu eta herritarrongan hurbil dagoen partaidetza-prozesua abian jartzea, musikaren esparruan sinergiak, lankidetzak eta uztarketak sustatuko dituen bere adierazpenik zabalenean, musika-kultura zabaltzeaz gain, proiektu eklektikoagoen eskaintza osatuz eta musika-doinuak eszenegrafia berritzaileekin hornituz

-ERESBIL artxiboarekin elkarlana sustatu eta sendotzea

-Konposizioen instrumentalizazio eta edizioa

-Obren estreinaldi edota programazioa

“Gure bakarlariak” ziklo ibiltaria oinarritzat hartzea, bakarlari gazte profesionalei lekua egiteko. Zuzenena jotzeko aukera ematea. Musika talentu berrien erakusketa zabaltzea.

-Konpositore berrien obra eta konposizioak ezagutaraztea.

- Euskal konpositoreen obraren berreskuratze historiko bidean sakontzen jarraitzea, bai partituren berreskurapen mailan, bai horien aurkezpen, programazioa eta estreinaldi mailan.

-Formatu, genero eta proposamen eszeniko berriak integratzea.

-Proposamen eszenikoak berritzeko prozesuetan sakontzen jarraitzea.

II- EMKEk 2023 urterako egitasmoa aurkeztu du **72.000€** euroko aurrekontua duena, hurrengo ekintzak aurrera eramateko:

\*Aprovechar el vacío que se genera más allá de la “educación académica musical” y poner en marcha un proceso participativo cercano a la ciudadanía que promueva sinergias, colaboraciones y maridajes en el ámbito de la música en su más amplia expresión, ampliando la cultura musical y completando la oferta de proyectos más eclécticos y dotando las melodías musicales de escenografías innovadoras

-Fomentar y fortalecer la colaboración con el archivo ERESBIL

-Instrumentalización y edición de composiciones

-Estreno y/o programación de obras

-Tomar como base el ciclo itinerante “Gure bakarlariak” para dar cabida a jóvenes solistas profesionales. Dar la opción de tocar lo más correcto. Ampliar la exposición de nuevos talentos musicales.

-Dar a conocer obras y composiciones de nuevos compositores.

-Continuar profundizando en la recuperación histórica de la obra de compositores vascos, tanto a nivel de recuperación de partituras como de presentación, programación y estreno de las mismas.

-Integración de nuevos formatos, géneros y propuestas escénicas.

-Continuar profundizando en los procesos de renovación de las propuestas escénicas.

II- EMKE presenta su proyecto para el año 2023 con un presupuesto de **72.000 €** para llevar a cabo las siguientes acciones:

| HILABETEA / MES | EGUNA / DIA | EGITASMOA / ACTIVIDAD   | KOKALEKUA / EMPLAZAMIENTO   |
|-----------------|-------------|-------------------------|-----------------------------|
| URTARIILA/ENERO | 6           | URTE BERRIKO KONTZERTUA | Koldo Mitxelena Ikastetxean |
| OTSAILA/FEBRERO | 21          | SARDINAREN ENTERRUA     | Juan De Olazabal            |

|                   |                                     |                                                                                                            |                               |
|-------------------|-------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
| OTSAILA/FEBRERO   | 25                                  | ZAHARRAK BERRI FORMATU TXIKIKO<br>EMANALDIA                                                                | Gabierrotako Zaharren Egoitza |
| MARTXOA/MARZO     | 17                                  | GURE BAKARLARIAK<br>Marife Nogales + EMKE musika Banda                                                     | Fatimako Eliza                |
| APIRILA/ABRIL     | 23                                  | KONTZERTUA                                                                                                 | Koldo Mitxelena Ikastetxea    |
| MAIATZA/MAYO      | 21                                  | MUSIKASTE 2023                                                                                             | Koldo Mitxelena Ikastetxea    |
| EKAINA/JUNIO      | 24                                  | "Touring 100 Mendeurrena 1923-2023"<br>EMKE Musika Banda+ Andra Mari Abesbatza<br>+ Ereintza Dantza Taldea | Herriko Plaza                 |
| UZTAILA/JULIO     | 21                                  | ZENTENARIOA                                                                                                | Herriko Plaza                 |
| UZTAILA/JULIO     | 22                                  | MADALENETAKO KONTZERTU NAGUSIA                                                                             | Koldo Mitxelena Ikastetxea    |
| UZTAILA/JULIO     | 25                                  | DANTZALDIA                                                                                                 | Gamon Zumardia                |
| UZTAILA/JULIO     | 31                                  | SAN INAZIO KONTZERTUA                                                                                      | Herriko Plaza                 |
| IRAILA/SEPTIEMBRE | data zehazteke/fecha a<br>concretar | ATLANTIKALDIA 2023                                                                                         | Herriko Plaza                 |
| URRIA/OCTUBRE     | data zehazteke/fecha a<br>concretar | KONTZERTUA                                                                                                 | Koldo Mitxelena Ikastetxea    |
| AZAROA/NOVIEMBRE  | 24                                  | SANTA ZEZILIA                                                                                              | Fatimako Eliza                |
| ABENDUA/DICIEMBRE | data zehazteke/fecha a<br>concretar | HAUR EMANALDIA                                                                                             | Lekuona Fabrika               |

- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea

- Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1. a artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) aurrerantzean, Ordenantza.

- Art. 22.2.a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. -en adelante, la Ley

- El artículo 11.1 a de la Ordenanza Municipal reguladora de la concesión de subvenciones en el Ayuntamiento de Errenteria (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 150, de 10 de agosto de 2015), en adelante, la Ordenanza.

## BALDINTZAK

### Lehenengoa: Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntza honen xedea da EMKEren proiektua finantzatzea

### Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Dirulaguntzaren gehieneko diru-kopurua 72.000,00 eurokoa izango da, aurrekontuko

## REQUISITOS

### Primera: Objeto de la subvención

El objeto de la subvención es la financiación del proyecto de EMKE.

### Segunda: Presupuesto y financiación

El importe de la subvención queda fijado en un máximo de 72.000,00 euros, con cargo a la partida

1.481.01.326.14.2023 partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurreikusi da HAEren Aurrekontu Orokorrean 2023 urterako.

#### **Hirugarrena: HAEren konpromisoak**

HAEk harturiko konpromisoak hauek dira:

a) EMKEri 72.000,00 euroko dirulaguntza ordainduko da, eta era honetan:

- Dirulaguntzaren %90 (64.800,00 euro), dekretua sinatzen denean.

- Dirulaguntzaren % 10 (7.200,00 euro), **2023ko abendua amaitu aurretik egingo da**, azken ordainketa hau urte osoko gastuen zuriketa aurkeztu ondoren egingo da, hau da, jatorrizko faktura eta bere ordainketaren ordainagiri bitartez. Guzti hau **abenduaren 15a baino lehen egin beharko da** (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren agiria ezik, hau, Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztu bezain pronto erakunde autonomoan aurkeztuko delarik).

#### **Laugarrena: Dirulaguntzaren entitate onuradunak harturiko konpromisoak.**

Dirulaguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) “Musika banda” proiektua garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

c) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Dirulaguntza eman duen erakundean justifikatu

presupuestaria 1.481.01.326.14.2023, prevista nominativamente en el Presupuesto General de HAE para el año 2023.

#### **Tercera: Compromisos de HAE**

Los compromisos adquiridos por HAE son los siguientes:

a) SE abonará una subvención de por importe de 72.000,00 euros de la siguiente forma:

- 90% de la subvención (64.800,00 euros), tras la firma del presente decreto.

- 10 % de la subvención (7.200,00 euros) se realizará **antes de finalizar el mes de diciembre de 2023**, previa presentación de la justificación de los gastos de todo el año, es decir, mediante factura original y recibo de su pago. Todo ello **con anterioridad al 15 de diciembre** (a excepción del documento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que se presentará en el organismo autónomo tan pronto como se presente en la Hacienda Foral de Gipuzkoa).

#### **Cuarta: Compromisos de la entidad beneficiaria de la subvención.**

Los compromisos adquiridos por la beneficiaria de la subvención son los siguientes:

a) Desarrollar el proyecto “Banda de Música” a tenor de la documentación presentada.

b) Solicitar cuantos permisos municipales o de otra índole se requieran.

c) Cumplir todas las obligaciones establecidas para los beneficiarios de subvenciones en el artículo 21 de la Ordenanza y el art. 14 de la Ley y, en especial, las siguientes:

- Justificar ante el órgano concedente el

beharko du betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala nola jarduera burutu eta dirulaguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.

- Beste dirulaguntza batzuk jasotzen baditu dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinarazi beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.

- Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.

- Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.

- Jasotako diru-kopuruen aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.

d) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.

e) Diru-laguntzaren onuradunak, 10.440 eurotik gorako (BEZa barne) gastuak egiten baditu ekipamendu-ondasunak hornitzeko edo aholkularitza

cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

- Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano competente, aportando cuanta información sea requerida.

- Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación de los fondos percibidos.

- Acreditar (antes de la realización de cada uno de los pagos) que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la seguridad social.

- Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentación, debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control, es decir, en el plazo de cuatro años.

d) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en el artículo 37 de la Ley.

e) En el caso de que el beneficiario de la subvención realice gastos superiores a 10.440 euros (IVA incluido) para la provisión de bienes de equipo o para



edo laguntza teknikoko enpresek zerbitzuak emateko, gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, eta jasota utzi.

f) 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusitako kausaren batean ez erortzea.

g) HAEekin harremana:

EMKEk hurrengo baldintzak bete beharko ditu:

1.- HAE ekitaldi ofizial guztietara gonbidatuko du, hala nola Musika Bandak parte hartu edo sortuko dituen gertakarien inguruko prentsa aurrekoetara.

2.- Udalaren eta HAEren izena eramango du dirulaguntza honen xedea diren jarduerak guztietan. Era berean, bi erakunde horien logotipoak jarriko ditu aipatutako jarduerak sustatzeko egiten den publizitatean.

3.- Dirulaguntza honen xedearekin lotutako gaiak aztertzeko beharrezkotzat jotzen denean, HAEekin batzartuko da.

4.- HAEri jakinaraziko dio, beharrezko denborarekin, zein diren burutzeko dituen jarduerak.

5.- HAEren ikasleei jakinaraziko die, nahi dutenek beharrezko denborarekin jakin dezaten jardueren egutegia. Informazio hori HAEko iragarki taulan jarriko da.

6.- EMKEk eskaintzen dituen kontzertuak Udal Txistulari Bandak emandakoekin batera ez izateko saiakera egingo du.

h) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: dirulaguntzaren entitate onuradunak dirulaguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatziari dagokionez:

-Hizkuntza paisaia:

la prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, deberá solicitar un mínimo de tres ofertas y dejar constancia de los mismos.

f) No incurrir en alguna de las causas previstas en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003.

g) Relación con HAE:

EMKE deberá cumplir los siguientes requisitos:

1.- Invitará a HAE a todos los actos oficiales, así como a las presentaciones de prensa sobre los acontecimientos en los que participe o genere la Banda de Música.

2.- Llevará el nombre del Ayuntamiento y de HAE en todas las actividades que realice al amparo del objeto de la presente subvención. Asimismo, incorporará logotipos de ambas entidades en la publicidad que se realice para la promoción de las citadas actividades.

3.- Cuando se considere necesario para el estudio de las cuestiones relacionadas con el objeto de la presente subvención, se reunirá con HAE.

4.- Comunicará a HAE, con la suficiente antelación, las actividades a desarrollar.

5.- Comunicará al alumnado de HAE el calendario de actividades para que las personas que lo deseen lo conozcan con el tiempo necesario. Esta información se colocará en el tablón de anuncios de HAE.

6.- Los conciertos que ofrece EMKE intentarán no coincidir con los ofrecidos por la Banda Municipal de Txistularis.

h) Cláusulas relativas al uso de los idiomas oficiales: La entidad beneficiaria de la subvención en las comunicaciones llevadas a cabo en las actuaciones objeto de la subvención, respetará las siguientes directrices:

En lo que respecta a las comunicaciones escritas:

- Paisaje lingüístico:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin alde aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egongo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: dirulaguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

#### Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki hurrekin egiten direnetan aritzen direnek, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkarteen antolatutako ekintza konkretuetan

Los rótulos, avisos, anuncios, tarjetas, publicidad y resto de comunicaciones se realizarán mediante pictogramas.

Cuando no pueda utilizarse un pictograma, los mensajes se redactarán en los dos idiomas, priorizando la versión en euskera (posición del texto, mayor tamaño de letra, negrilla). Previamente se consensuarán con el Ayuntamiento.

Los programas, anuncios, y avisos de las actividades objeto de la subvención que se publiquen y pongan a disposición de la ciudadanía se redactarán como mínimo en los dos idiomas oficiales, dando prioridad al euskera.

- Relación con la Administración: en el momento de la tramitación de la solicitud de subvención se les solicitará que hagan el esfuerzo de mantener en euskera la relación oral y escrita con el Ayuntamiento, sin olvidar que la Ley 2/2016, de 7 de abril y la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, reconocen a la ciudadanía el derecho de comunicarse con la administración en los dos idiomas oficiales.

#### En lo que respecta a las comunicaciones orales:

Con el fin de garantizar los derechos lingüísticos de las y los ciudadanos que quieran comunicarse en euskera, se priorizará que quienes participen en las actividades que se realicen con la ciudadanía en general, y en particular en las que se realicen con las niñas y niños, tengan capacidad lingüística necesaria para comunicarse en los dos idiomas oficiales.

La propaganda, avisos, publicidad etc. que se realicen por altavoces se harán en los dos idiomas oficiales, dando en ese caso prioridad al euskera. Cuando las características de la actividad o de las personas que participen en ella así lo requieran se priorizará el uso del euskera.

Los mensajes emitidos mediante megafonía durante

megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

i) Berdintasunerako klausula: dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarritako oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarritakoak ere.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

j) Ingurumenaren alorreko klausula: dirulaguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian HAEn aurkeztu beharreko

los actos concretos, así como la música y canciones, deberán cumplir esa condición.

Cuando se organice alguna conferencia o similar y la persona ponente no sepa euskera, se solicitará la presencia de una persona ayudante vascoparlante, al objeto de que se respeten los derechos de las personas que deseen utilizar el euskera.

i) Cláusula de igualdad: La entidad beneficiaria de la subvención deberá dar cumplimiento a los principios y obligaciones establecidas en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres; y Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas, y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidad de género.

j) Cláusula de medio ambiente: La entidad beneficiaria de la subvención con carácter general tendrá en cuenta la adopción de criterios ambientales en las siguientes materias: (1) eficiencia y ahorro energéticos, (2) gestión y recogida selectiva de las diferentes fracciones de residuos, además de la prevención en su generación, (3) no generar afecciones a la diversidad local (hábitats naturales, especies y procesos ecológicos), (4) ahorro de recursos naturales (agua, consumo sostenible), (5) recogida adecuada de las aguas residuales generadas, (6) impulsar una movilidad sostenible, y (7) no emisión de ruidos superiores a los topes establecidos en la normativa vigente y garantía de calidad acústica con respecto a la ciudadanía y el medio ambiente.

En cuanto a la diferente documentación a presentar

dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

k) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko HAEren eta Errenteriako Udalaren lankidetzan, esaldi honen arabera: "HAEren eta Errenteriako Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarra HAEren eta Errenteriako Udala denean, hala nola babesa beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu horretan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

**Seigarrena: Dirulaguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.**

HAEk, bere teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, 2023ko abenduan, HAE aurkeztu beharko du dirulaguntzak xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen kopia bat.

**2023ko abendua amaitu aurretik egingo da**, azken ordainketa hau urte osoko gastuen zuriaketa aurkeztu ondoren egingo da, hau da, jatorrizko faktura eta bere ordainketaren ordainagiri bitartez. Guzti hau

en HAE en soporte papel, se entregará en papel 100% reciclado, totalmente libre de cloro, e impreso por las dos caras.

k) Hacer constar en la totalidad de sus actuaciones y en todos los medios de difusión utilizados (radio, prensa, carteles, programas de mano, etc.) la colaboración de HAE y del Ayuntamiento de Errenteria en la financiación del proyecto, bajo la frase "Con la colaboración de HAE y del Ayuntamiento de Errenteria", añadiendo a dicha frase el escudo de la Villa en caso de difusión escrita. Requisito que se cumplirá tanto si HAE y el Ayuntamiento de Errenteria fuera único colaborador, como en el caso de que compartiera este patrocinio con diferentes colaboradores. En este último caso la frase antes referida será cuando menos de igual tamaño que el de la mayor que se utilizara.

**Sexta: Seguimiento y justificación de la subvención.**

HAE, a través de su técnico, llevará a cabo el seguimiento y comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determine la concesión o disfrute de la subvención.

La entidad beneficiaria de la subvención deberá, en el mes de diciembre 2023, presentar en HAE una memoria de desarrollo del proyecto / actividades objeto de la subvención. En dicha memoria se hará una exposición valorativa de las actividades llevadas a cabo, incluyendo un balance de los gastos e ingresos habidos, así como copia de las facturas o documentos justificativos de los gastos efectuados.

Este último pago se realizará **antes de finalizar el mes de diciembre de 2023**, previa presentación de la justificación de los gastos de todo el año, es decir, mediante factura original y recibo de su pago. **Todo**

**abenduaren 15a baino lehen egin beharko da,** (pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren agiria ezik, hau, Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztu bezain pronto erakunde autonomoan aurkeztuko delarik)

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak, diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Dirulaguntza jasotzen duen entitate hartzaileak, memoriaz gain, digitalki aurkeztu beharko ditu programaren eta jardueren argazkiak (argazki bakoitzari zein jarduera edo programa dagokion adierazi beharko da), hala nola hedapenerako erabiliriko euskarri guztiak.

**Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste dirulaguntza publiko batzuekin. (Bateraezintasuna)**

Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.

Dena den, dirulaguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Errenteriako Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako dirulaguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek dirulaguntzetarako eginiko deialdien arabera egokituko ahalko litzaiokeen edozein

**ello con anterioridad al 15 de diciembre,** (a excepción del documento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, que se presentará en el organismo autónomo tan pronto como se presente en la Hacienda Foral de Gipuzkoa)

Los gastos se acreditarán mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa.

Cuando las actividades hayan sido financiadas, además de con la subvención, con fondos propios u otras subvenciones o recursos, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

La entidad perceptora de la subvención, además de la memoria, habrá de presentar digitalmente las fotos del programa y de las actividades (indicar que actividad o programa pertenece a cada foto), así como todos los soportes utilizados para la difusión. (

**Séptima: Compatibilidad con otras subvenciones públicas. (Incompatibilidad)**

La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de otras administraciones o entes públicos o privados.

Sin embargo, la presente subvención es incompatible con la percepción de otras subvenciones o ayudas provenientes del Ayuntamiento de Errenteria y/o sus organismos autónomos para la misma finalidad, de forma que la entidad beneficiaria renuncia a cualquier tipo de ayuda o subvención que le pudiera corresponder conforme a las convocatorias de subvención que se realicen desde los diferentes

laguntza edo dirulaguntza motari.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan dirulaguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

**Zortzigarrena: Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.**

Dirulaguntzaren entitate onuradunak HAEn eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, dekretu hau aldatzea ezarriko epeak zabaltzeko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen denean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

HAEk erabaki hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, erabaki hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

**Bederatzigarrena: Ebazpena ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea.**

Dirulaguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du dirulaguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den,

departamentos del Ayuntamiento o sus organismos autónomos.

En cualquier caso, el importe de las ayudas concedidas no podrá ser en ningún caso de tal cuantía que, aislada o conjuntamente, supere el coste del objeto de la subvención.

**Octava: Modificación de las condiciones de la subvención.**

La entidad beneficiaria de la subvención podrá solicitar a HAE, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones del presente decreto que supongan ampliación de plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando tengan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceras personas.

HAE podrá modificar el presente acuerdo, previa comunicación a la persona beneficiaria y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tomadas en cuenta para la aprobación del presente acuerdo impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido, y no se irroguen perjuicios económicos a la persona beneficiaria.

**Novena: Incumplimiento y reintegro de la subvención.**

El incumplimiento de cualquiera de las obligaciones de la entidad beneficiaria de la subvención supondrá la revisión o resolución de la misma, y en su caso, la disminución o devolución de la cantidad otorgada, en los términos previstos en los artículos 23 y 37 de la Ordenanza y 37 y siguientes de la Ley, sin perjuicio de las responsabilidades que se pudieran exigir.



erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arazoak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute dirulaguntza bertan behera uztea edo etetea.

#### **Hamargarrena: datu pertsonalak babestea.**

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko apirilaren 27ko 2016/679 Europako Erregelamenduak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarrikoak betetzea.

#### **Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa.**

Dirulaguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta berau garatzeko araudia.

#### **Hamabigarrena: Araubide Juridikoa.**

Erabaki honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.

Erabaki honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal Ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarrikoak uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia, urriaren 1eko

Para graduar los incumplimientos se utilizará el criterio de proporcionalidad.

Cuando no se pudiera o no interesara proseguir el desarrollo del trabajo por causas inherentes a la viabilidad o naturaleza del proyecto u otras debidamente justificadas, se podrá resolver o interrumpir la subvención de mutuo acuerdo.

#### **Décima: Protección de datos personales.**

En el caso de que se lleve a cabo tratamiento de datos de carácter personal, ambas partes acuerdan cumplir lo establecido en la el Reglamento Europeo 2016/679, de 27 de abril, relativo al tratamiento de los datos personales, y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre.

#### **Undécima: Prevención de riesgos laborales.**

La entidad beneficiaria de la subvención, en el desarrollo del proyecto o actividades subvencionadas, cumplirá con la normativa vigente en materia de prevención de riesgos laborales, Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales y normativa de desarrollo.

#### **Duodécima: Régimen jurídico**

La presente Resolución es de carácter administrativo, por lo que su interpretación y desarrollo se regirá por lo establecido en la ordenamiento jurídico-administrativo.

En todos los aspectos que no hayan sido establecidos en la presente Resolución, se aplicará la legislación vigente en el ámbito administrativo y, en particular, lo establecido en la Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Errenteria, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el Real Decreto 887/2006 de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de

39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

#### **Hamahirugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa**

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena

noviembre, General de Subvenciones, en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, del Régimen Jurídico del Sector Público. Subsidiariamente, se aplicarán las normas de derecho privado.

#### **Decimo tercera: Jurisdicción competente**

Los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián serán competentes para resolver las cuestiones litigiosas que puedan surgir entre las partes, las cuales reconocen la competencia territorial de dichos Juzgados.